

Ekai Txapartegi

FILOSOFIAN DOKTOREA

Gudan gaude

Matrix pelikulan bezala, makinaren aurkako gudan gaude. Makinan pentsatu nahi baduzu, pentsatu gobernuan, parlamentuan, alderdi politiko eta komunikabideetan.

Pentsatu gizatasunik gabeko teknologia juridiko eta instituzional sofistikatu horretan. Hori da makina. Ez dauka bihotzik; baina aurpegiak badauzka. Rubalcaba, Zapatero, Lopez, Urkullu.

Bilduta daude makinaren programatzaileak. FMI, ACS, BBVA, SANTANDER, FCC, ENDESA. Makinaren gainetik daude. Programatzaileak dira, ez dira gu bezala. Gu baino lehenago oharitu ziren gudan gaudela, eta aurrea hartu digute.

Herritarrak boteregabetzeko programatu dute makina.

Hipotekak ito egiten gaitu. Lanik gabe edo prekarietatean, makinak ez dizu arnasarik hartzen uzten, *off* zaude. Zergak igo, argia igo, gasolina igo. Pentsio erreforma. Gizartea EEEn dago. Makinak baditu mila bide herritarrak odolusten jarraitzeko.

Errauste-planta eraiki. Herritarrak pobretu. Herritarrak gaixotu. Herritarroi ardura zibikoak kendu, hezkuntza hiritarra kima-tu. Makinak horrela gobernatzen du. Hori da Madrilen, Gasteizen edo Donostian daukaguna.

“*Indignez-vous!*” dio agureak. Eta zinez, guda hau irabazi nahi badugu... Ingeniariak,



EGOITZ LASA

langabetuak, autonomoak, ikasleak, irakasleak. Non arraio daude gazteak? Baita agureak ere! Guztiak beharko ditugu.

Gizadia odolusteko makina asmatua dago. Martxan jarri dute. XXI. mendeko teknologia, eta XXI. mendeko paranoia. Erreal da. Morfeo, non zaude?

“*El comunicado de ETA cae sobre un colchón de unidad*”. Makinaren batasuna da.

Herritarrak makinaren zerbitzura eta makina programatzaileen zerbitzura, horrela jarrita dago. Herritar mehetuak, kapitalista gizenak. Injustizia sozialaren datuak izutzeak dira. Aberastasunaren %80a gizartearen %20ak gordetzen du. Tartearen gobernu, kapitalistentzat bazka herritarron hesteetan bilatzen. Makina bera Alemanian, Grezian, Irlandan, Portugalen.

Ilegalizazioa. Atxiloketak. Torturak. Makinatik irten nahi duenari makila. Egia dakienari. Makinak nola funtzionatzen duen esaten duenari. Espazioak irabazten dizkietenei. Hernani, Oiarzun, Usurbil. *Matrix*eko kartzelan askatasunak 8719600510 zenbakia du.

Zuk ere, nik bezala, ekonomia politikaren zerbitzura ikusi nahi baduzu, eta ez alderantziz; zuk ere, nik bezala, politika herritarron zerbitzura ikusi nahi baduzu, eta ez alderantziz; orduan zu ere, ni bezala, makinaren aurkako gudan zaude. ■

Ekonomia politikaren zerbitzura ikusi nahi baduzu, zuk ere, nik bezala, politika herritarron zerbitzura ikusi nahi baduzu, orduan zu ere, ni bezala, makinaren aurkako gudan zaude

TXANDAN

Andoni Mujika



Agertzeko beharra berezkoa da pertsonengan, naturala. Animaliatan ere ikus daiteke helburu bat lortzeko. *Kortejoan* adibidez. Galdetzen dut portaera horren azpian ez ote dagoen *botere* nahia. Suabeago esanda: gainontzekoen artean nor izateko premia. Hala bada, kasu batzuetan arriskutsua ere izan daiteke. Boterearen arriskua esan nahi dut. Beraz, neurri kontua al da? Ba igual ez. Beharbada, hurkoarentzat arriskutsua da guztion agertzeko gogo hori (bizitzeko oinarrizko ogia dena) protagonistak jan egiten dionean. Agertokien monopolioa eragiten duenean. Horixe da azaldu nahi nuen

Agertzeaz

lehen arriskua. Bigarren arriskura joan baino lehen, beste komentario bat: agertzea aklamatu eta txalotua denean, plazenteroa da bai indioilarrarentzat, baita indioentzat ere. Txalorik ez dagoenean, oster, oinazea dakar, frustrazioa eta botere-galtzea. Lumak jausi egiten dira. Eta nire buruari galdetzen diot: zergatik behar dute batzuek exhibizio dosi handiagoa eta beste batzuek txikiagoa? Uste dut batzuek, edo guztiontzako agian, aurrera jarraitzeko doako droga dela. Doakoa esan al dut? Ba ez dakit. Hemen legoke bigarren arriskua: neurri-gabe protagonista izan behar horrek, ospearen gulak, helburu handiagoak sekundarizatu ditzake. ■